

BALEKE

212. ZENBAKIA. EURO BAT
2012ko UZTAILA

www.baleke.com



ETXEAN BERRIRO

Etxeko atek zabaldu dizkigu
Lizeaga-Urkidi familiak, Beñaten
espetxealdiaz eta askatzeaz
hitz egiteko.

SURFA: BI BELAUNALDI OLATU GAINEAN



Kalitatezko
produktuak

Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA

Juanjo Larrañaga harategia



ALBONDICAK
SALTSAN

2X1

ZUMAIA
Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ
Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

BALEIKE 212

AZALA A. Rubio Aprea



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta
Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon
Urbietta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Legia gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

11

baleike +

BEÑAT LIZEAGA BERRIRO ETXEAN

4

gutuna
RAFAEL DEL PILAR

6

iritzia
'BIRIZIKLAPENA BAI,
ATEZ ATEKORIK EZ'
PLATAFORMA

8

hitz-tantak
JOSU ARRIETA

18

erreportajea
'PEKE' ETA IMANOL
YEREGI

25

elkarrizketa
OIHANA KORTAZAR ETA
ANA CONDE

29

baleike
BALEIKE SAREAN

30

publi-erreportajea
ALBERDI FRUTADENDA

34

editoriala
HEDABIDEAK

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaiaiko Udala





Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

7 MARES izoztuak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



ALAI BERRI
supermerkatuak

Asteleheneetik igandera 08:00etatik 15:00etara
eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.

Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261



Paladar dulce, corazón sano

Aho bete gogo, bilhotz bete osasun



ALGORRITABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ETXeko ZAPATAK

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anaetxeokozapatak@telefonica.net



ILEA PAINDEGIA

D'Ana

Kantauri plaza, 6. behea
tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532


Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Girozea
- Iturgintza
- Energi berriztagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
Arkupe

Nagusia, 2 • tel. 943 561 501
ZUMAIA

OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe 2/9
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritzza

Ribaitario
Itaki Garmendia

Basadi, 7. behea • tel. 943 143 310
www.basadiclinicvet.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia

Lamiakelarsko: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patxita Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073



Braky's
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

FOIE GRASA. HERIOTZAREN IZENA DA NIRETZAT

Rafael del Pilar

Animalientzat “nazi” batzuk besterik ez gara giza masa handi eta unibertsala osatzen dugunok, eta, gainera, naturak bidean jarri dien elementurik asaldatzaileenak eta hilgarrienak gara haientzat.

Giza kanibala elikatzekeo esplotatuak, animalia koitaduek hain bizi laburra kaiolan ematen dute oro har, bizi baldintza penagarrietan.

Horri dagokionez, ‘haragi industrial ekoizle’ diren enpresen arduradunek, ideologia batekoek zein bestekoek, ez dute beren gain hartzen beraien animaliekiko inolako erantzukizun etiko edo moralik. Axola dien bakarra da beraien negozio kontsumista errentagarria izatea, eta gehiegitan produktu garestiak eta kalitate txikikoak merkatu-ratzen dituzte.

Kostatu egiten da uler-zea gurea bezalako gizarte modernoa, animalien haragi gosez eta odol egarriz, nola limurtzen duen sirena kantuekin “industria kolonizatzaile” kapitalistak, eta kaka kimikoz makillatutako produktuekin pozoitzen gaituzte, eta horiek izango dira geroko gaixotasunen iturri.

Nagusi den ideologia kapitalista horrek *konpontxo* egiten du: kontsumitzailearekiko errespetu edo etika gutxi dago, eta animaliekiko batere ez.

Errentagarritasun ekonomikoa gailentzen da. Ondorioz, anesthesiatu itxura duen gizartearen aurrean, merkatuek haien legea ezartzen dute.

Ámame enCARNEcidamente izenburuko dokumental belgikarra eman dute orain gutxi telebistan, eta erakutsi zuten nola milioika animalia hiltzen dituzten munduan, “abeltegi eta hiltegi” industria deitzen dieten infernuko sarraskigune edo gorputegi horietan.

Ikustea gomendatzen dizuet, denoi axola zaigun kontua da-eta.

Dokumental horretan gogoeta egiten da eta zalantzan jartzen dira elikatzekeo eta kontsumitzekeo gure ohitura batzuk, agerian jartzen da alde handia dagoela animaliekiko parametro etikoak eta ekologikoak aintzat hartu dituzten abere ustiatzearen eta makroekoizpen “industrialen” artean,

azken horietan animaliak azkarrago hazteko eta gizentzeko gehigarri kimikoz leporaino betetzen dituztela, eta gero, guk kontsumitzean, gure organismoetara igaroko dira gehigarri horiek.

Jaio eta berehala, arrautza eta haragi ekoizpena bideratutako hegaztiak kaiola txiki batzuetan sartzen dituzte pilatuta, eta ekoizpen aldia amaitzen dutenean, hil egiten dituzte.

Ahateak dira okerren pasatzen dutenak. Behartuta gizentzen dituzte, bortizki, eta tortura aroa amaitzen denean, gibela lehertuta hiltzen dira, zirrosiak jota. Ikaragarria da, horrela lortzen da foie grasa, hiltzerian daude milaka ahate gaixoren sufrimendutik datorren produktua, eta baztertu egin beharko genuke.

Gizakia diruzalea eta ankerra dela erakusten digu horrek, baina gizartearen horrek ez du eztabaidarik eragiten...

Iraingarria da, horrez gain, ikustea nola “kromaño” ezjakin batzuek jolasarako erabiltzen dituzten “ospakizun tradizional” batzuetan, eta amaieran burua kendu.

Gaur egun, hamabost herrialdetan (tartean Ingalaterra, Italia eta Alemanian), debekatu egin dute ahateak behartuta elikatzea eta manipulatzea foie grasa lortzeko. Kalifornian betoa jarri diote foie grasa salerosteari eta ahots asko altxatu dira munduan kontu horregatik.

Nire ametsa da Zumaian kontzientzia animalista piztea, praktika anker eta zikin horien erabat aurkakoa izango dena. Kontzientzia irmo eta eskuzabala, gure herrian EZ! ozen batekin arbuatuko duena produktu hori saldu edo erostea, gutxieneko sentsibilitatea duen edonori lotsa eta nazka eman beharko liokeelako horrek.

Kontsumitzaileok izan gaitezke foie gras “industriari” amaiera emango liokeen suebakia... ahate gaixoen izugarriko sufrimendua gaitzetsita.

Bat egin dezagun “animaliekiko tratu etikoa” eredu europarrarekin. Balio kontserbazionisten eskalan mailarik gorena lortuko luke gure herriak, promesaz betetako aldi berri bat sortzeko. ■



Nire ametsa
da Zumaian
kontzientzia
animalista piztea



ZUMAIAKO "BIRZIKLAPENA BAI, ATEZ ATEKORIK EZ" PLATAFORMAREN BALORAZIOA

GEZURRAK, MANIPULAZIOA ETA INPOSIZIOA



Zintzilikarioen bidezko atez ateko zabor bilketa sistemaren aurkako 4.000 zumaiarren sinadurak bildu ditugu azken hilabeteetan. Zumaiako alderdi politiko ezberdinekin eta Urola Kostako Udal Elkartearekin bilerak izan ondoren, kanpainaren balorazioa azaldu nahi dugu.

Ez dugu inongo erantzunik jaso guk egindako bi eskaerei: Gobernu Batzordeak atez ateko sistema ezartzeko prozesua bertan behera uztea eta 5. edukiontzia erabilerara Zumaiako famili guztiei zabaltzea.

Udal Elkarteako arduradunek esan digutenez, ekainaren bukaera aldera iritsiko dira Zumaiara 5. edukiontzia erabili ahal izateko giltza eta ontzi gehiago, baina horiek eskuratzeko "ikastaroa" egitea ezinbestekoa izango da. Gaikako bilketa erraztu ordez, badirudi zailtasunak jartzea dela helburua ("ikastaro" horietan esaten dena orri informatibo batean azal daiteke ederki asko).

Zumaiarrok azkenaldian jaso ditugun esku-orriek (bata Udalarena eta bestea Udal Elkartearena) akats nabariak dituzte: gaikako bilketari buruzko datuak ez dira benetakoak eta ez datoz bat (%36 alde

batetik eta %29 bestetik). Birziklapena gauza serioa da eta zumaiarrei ezin zaizkie datu okerrak eman. Dirudienez zabor bilketaren estatistikak ere ez dira behar bezala egiten: ez dago kontrol zehatzik. Gezurretan ari zaizkigu. Gure iritzia argi azaldu dugun 4.000 zumaiarri errespetua zor digute.

Gobernu Batzordeko eta oposizioko alderdi politikoetako ordezkariekin bildu gara. Atez ateko zabor bilketa sistemaren inguruan nabariak dira Gobernu Batzordea osatzen duten alderdien ambiguitasuna eta beraien arteko kontraesanak. Hau ez da serioa. Denbora aurrera doa eta atez atekoa ezartzeko inbertsioak ere bai. Itzulerarik gabeko egoerara eraman nahi gaituzte. Alkatuek denbora eskatu digu (udazkenara arte) bai edo ez erantzuteko, eta Aralarrek denbora bera eskatu digu atez atekoaren ordezkari beste sistema bat aurkitu edo asmatzeko. Zergatik behar dute hainbeste denbora? Gobernu Batzordeak zabaldu duen atez atekoaren aldeko propaganda guztiak eta egindako adierazpen guztiek herritarren parte hartzea eta guztien arteko adosta-

Gaikako bilketa ahalik eta gehien handitzeko zumaiarrei bitartekoak eskaini behar zaizkie

batetik eta %29 bestetik). Birziklapena gauza serioa da eta zumaiarrei ezin zaizkie datu okerrak eman. Dirudienez zabor bilketaren estatistikak ere ez dira behar bezala egiten: ez dago kontrol zehatzik. Gezurretan ari zaizkigu. Gure iritzia argi azaldu dugun 4.000 zumaiarri errespetua zor digute.

suna dituzte ardatz nagusizat. 4.000 zumaiarrek eskaera bat sinatu izana ez al da ba parte hartzea? Gobernu Batzordearen proposamenaren aurkako eskaerari erantzutea ez al da adostasuna bilatzea? Izugarriko protesta honi ez entzunarena egitea inposizioa besterik ez da.

%80ko gaikako bilketa maila onartzea eskatzen digute. Zer dela eta zifra hori? Zergatik ez %70, Zarautzen bezala? Zergatik ez saiatu urtero maila igotzen, helburu jakin batera iritsi arte? %80ko helburua ez da lortu atez atekoa ezarri duten lau herrietako bakar batean ere. Aralar alderdiko ordezkarien kalkuluen arabera herri horietan zaborraren %20 edo %30 “desagertu” egiten da (zabor turismoa). Zergatik ez dira gure agintariak benetan saiatzen herritarrak kontzientziazten eta gaikako bilketa eroso, garbi eta erraz bat bilatzen? Era horretan gaikako bilketa maila igoko litzateke eta zabor turismorik ez legoke. Zergatik dago Zumaiaiko Aralar alderdiko ordezkaria atez atekoa inposatzearen alde eta Getariako Aralar, aldiz, 5 edukiontzien sistema hobetzearen alde? Zabor bilketa gai serioa da, baina badirudi axolagabeen eskutan dagoela.

Oposizioko alderdi politikoei ez ohiko pleno bat eskatzea iradoki diegu, honako gai bakarra izango lukeena: atez ateko zabor bilketa sistema ezartzeko 2012ko martxoan adostutako erabakia bertan behera uztea.

Sinadurak biltzen jarraituko dugu. Sinadura bilketa 2012ko San Pedro jaietan amaitzea aurreikusi genuen, baina kontuan hartuta Zumaian etxebizitza duen hainbat udatiar iritsiko direla laster gure artera, eta atez atekoa ezarri gero, haiek ere sistema horren eragozpenak jasan beharko litzateke, bilketarekin aurrera jarraitzea erabaki dugu.

“Zero Zabor” helburua ezin da lortu atez atekoa inposatuz eta zumaiarren parte hartzerik gabe.

Zero Zabor “norabide” egokia da errefusa ahalik eta gehien murrizteko, baina helburu hori ezin da lortu herritarren parte hartze eta adostasunik gabe. Nor ez dago gaikako bilketaren eta birziklapenaren alde? Zumaia Plataformako kideok uste dugu helburu hori 5 edukiontzien sistemaren bidez lor daitekeela, beti ere behar beharrezkoak diren aldaketa eta hobekuntzak egin ondoren.

Herritarrentzat eroso den sistema baten alde gaude: etxebizitzetatik gertu dauden edukiontzia. Gaikako bilketari buruzko kontzientziazioaren, sentsibilizazioaren eta informazioaren alde gaude. Ez dugu sinesten dagoeneko Gipuzkoako lau herritan ezarri den sistema deseroso, osasungaitz eta antiespetiko horretan.

Zumaian egiten den gaikako bilketari buruz Zumaiaiko Udalak eta Urola Kostako Udal Elkarteak emandako datuak ez datoz bat. Zabor frakzio ezberdinak neurtzeko sistema ez da sinesgarria. Sistema zorrotzagoa eta fidagarriagoa eskatzen dugu, zumaiarrek gaikako bilketa eta birziklapen maila buruzko informazio ahalik eta zehatzena izan dezaten.



Ezinbestekoa da zumaiar guztiei hondakin organikoak bereizteko aukera ematea. Horretarako 5. edukiontzirako giltzak eta ontziak eman behar zaizkie oraindik ez dituzten familia guztiei.

Edukiontzi ezberdinei buruzko informazio zehatza eman behar zaie herritarrei, orain arte emandako informazio orokorra ez baita nahikoa. Informazio hori edukiontzietan bertan ager daiteke eranskailuen bidez (zer bota daiteken eta zer ez azalduz). Beste informazio iturri garrantzitsua Zumaiaiko Udaleko web orria da: Udalak herritarrei jakinarazi behar die euskarazko “zer non” atalean 641 hondakin mota ezberdinen zerrenda dagoela (eta gaztelarazko “cada cosa en su sitio” atalean berriz, 139 hondakin moten zerrenda), zerrenda horiek etxetik etxera bana daitezke...

Zabor frakzio ezberdinentzako ontzi txiki gehiago behar ditugu Zumaiaiko kaleetan, baina argi adierazi behar dute bakoitzean zer bota daiteken eta zer ez.

Zumaiarrok urteak daramatzagu gaikako bilketa posible dela erakutsiz, eta birziklapen mailaren igoerak argi frogatzen du: %17 2007an eta %33 2010ean (Zumaiazu, 2012ko apirila).

Gaikako bilketa ahalik eta gehien handitzeko zumaiarrei birtartekoak eskaini behar zaizkie: lehenik eta behin, 5. edukiontzia erabiltzeko aukera, eta horrez gain, herritar guztiei (haur, gazte eta helduei) zuzendutako sentsibilizazio, kontzientziazio eta informazio kanpainak. ■

Gure iritzia argi azaldu dugun 4.000 zumaiarri errespetua zor digute

“Kiroltasun handia daukagu borrokalarien artean”

Urtebete pasa darama kolpeak jotzen eta hartzen. Eta entrenamenduetatik etxera lasai ederrean joaten, boxeoa ez baita soilik kolpe kontua: “Lasaitzeko paregabea da”. Arrisku txikiko kirola dela dio.

TESTUA: AITOR MANTEROLA

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Noiztik zabilta boxeoa?

Aurreko urtean hasi nintzen, eta eskubaloiarekin batera egiten nuen. Aurten, boxeoa bakarrik nabil. Urtebete eta hilabete da hasi nintzela.

Nolatan?

Entrenatzailea ezagutzen nuen [Ruben, kubatarra], gimnasioan, eta harreman ona egin genuen. Beti gustatu izan zaizkit kontaktuko kirolak. Gazteagotan, judon ibili nintzen, eta taekwondo

ere probatu nuen. Beti izan dut boxeoa probatzeko gogoia, zerbait ezberdina egite aldera-edo. Rubenek esaten zidan animatzeko, eta horrela, ba, esperientzia berri bat bizitzen ari naiz.

Boxeoa probatzea zer da, ringera igo eta borrokan hastea zuzenean?

Ez, ez. Donostian egin dut aurreneko borrokaldia, duela hilabete-edo. Gero, handik bi astera, Zumaian bertan izan nuen.

Urtebete behar al da borrokarako prestatzen?

Ez, bakoitzaren arabera izaten da. Jendearen aurrean borrokatzeari daukana baino

garrantzia handiagoa ematen dio jendeak.

“Etxean disgusto handia daukate oraindik ere”

Entrenamenduetan eta klaseetan askatasun gehiago izaten da, eta hor ere lehiatzen gara, neurtuta, betiere. Jendearen aurrean, berriz, ezezagunen aurka egin behar duzu borroka, jendearen aurrean, epaileekin... Seriotasuna ematen dio horrek, eta errespetu pixka bat ematen du.

Probatzeko hasi zinela esan duzu. Espero zenuena aurkitu al zenuen?

Bai. Kirol fisikoa da, baina buruak garrantzi handia dauka. Ikusi egin behar da aurkaria zertan ari den, zer egin dezakeen. Gustatzen zait aurkaria aztertzea,

nondik sartzeko aukera dudana-eta ikustea.

Burua erabili behar duzue borrokaren erdian, eta parez pare zure helburu berak dituen izanda. Zaila, ezta?

Ezagutzen dituzunekin errazagoa da, ezagutzen ez dituzunekin zailagoa. Baina ezezagun izate horrek xarma berezia dauka. Borrokan, nerbioek ere sekulako eragina izaten dute, eta pott eginda bukatzen duzu. Donostiako borrokan, uste nuen erraz eutsiko niola fisikoki. Bi minutuko hiru asalto ziren, eta hasi orduko nekatuta nengo; jendea duzu begira, nerbioak, burua bere lekuan izatea ez da erraza.

Zer egin zenuen Donostian, zure debutean? Berdinketa.

Eta Zumaian? Irabazi.

Zer helburu daukazu boxeoa?

Ikasten joan, eta beste esperientzia berri bat bizi. Denbora daukadan bitartean,





JOSU ARRIETA

Jaioterra: Zumaia.

Jaioteguna: 1988ko otsailaren 12an.

Ikasketak: Arkitektura bukatzeko, proiektua ematea falta zait; urrian egingo dut hori.

Boxeolari bat: Manny Pacquiao. Momentuan, bera da onena.

jarraitu egingo dut.

Boxeoa kolpeak jotzea eta hartzea baino gehiago al da?

Bai. Kanpotik begiratuta hala da, baina buruko lan handia eskatzen du. Kirol hau itxia da, berez, eta kanpokoentzat zikinaren ospea du. Baina kiroltasun handia dago gure artean. Ez goaz besteari min ematera, irabaztera baizik. Beste edozein kiroleran, legez kanpoko kolpeak eman ditzakezu epaileak ikusten ez bazaitu, baina boxeoa ezin da.

Baina zikin dabiltzanak ere izango dira, ezta?

Bai, kirol guztietan bezala, baina epailea gainean daukagu denbora guztian. Ez dute uzten legez kanpoko ezer egiten. Gu amateurrak gara, eta kaskoarekin aritzen gara, eskularruak handiagoak dira... Profesionaletan izaten dira beste kontu horiek. Jendea harrিতuta geratzen da zer garbia den. Zumaian, azkeneko borrokan, batek hiru kolpe segidan hartu zituen, eta epaileek segituan eten zuten borroka; ez dute

uzten halakorik egiten.

Beste adibide bat, antzekoa, Astigarragan gertatu berri da: borroka hasi orduko konturatu ziren epaileak batek besteak baino askoz gaitasun handiagoa zuela, eta bertan behera utzi zuten borroka.

Zenbat zabiltzate Zumaian?

Hogeitik gora. Zumaia hamaik hamar bat gara, eta besteak beste Azpeititik eta Azkoititik etortzen dira. Denetarik gaude, eta guztien nahia ez da jendearen aurreko borroketan aritzea. Kirola egiteagatik datozenak ere badira, oso kirol gogorra delako. Gero, barruko tentsioak botatzeko ere egokia da, zakuari kolpeak emate hori gauza ederra da.

Zumaia bakarra al zara borroketan dabilena?

Oraingoz bai. Beste biak Lasako eta Azpeitikoak dira gure taldeak. Pixkanakajende gehiago animatuko dela uste dut.

Zer esan zizuten etxean boxeoa hasi behar

“Kirol fisikoa da baina buruak garrantzi handia dauka”

zenuela entzunda?

Etxean... Disgustu handia daukate oraindik ere. Zain daude noiz utziko kirol hau, beste batean hasteko. Ez zuten espero. Entrenatzen hasi nintzenean, hainbestean, baina esan nienean borroka egin behar nuela jendearen aurrean, ilusio gutxi egin zien.

Joan al ziren ikustera?

Ez, ez. Egun horretan aipatu ere ez zen egin etxean kontu hau. Ulertzen dut beraien jarrera, kanpotik begiratuta oso kirol zikina delako.

Boxeoa aritzea gustatzen zaizu, eta ikustea?

Ez pentsa. Telebistan-eta ez

zait asko gustatzen. Noizean behin bakarrik ikusten dut.

Zer ematen dizu boxeoa?

Entrenatetik etxera lasai-lasai joaten naiz, tentsio guztiak botata. Gomendatzen diot jendeari alde horretatik, paregabea iruditzen zait barruak lasaitzeko.

Non duzu hurrengo borroka?

Udan jai izaten dugu. Ea udazkenean zer bait sortzen den. Ezaugarri fisiko berdintsuak dituen aurkaria aurkitu behar da, eta kirol hau egiten antzeko denbora daramana ere bai. Nik orain ez dut aurkaririk, nire pisukoak (87 kilo) oso gutxi daudelako.

Borroken aurretik, zuek ere egiten al dituzue ikuskizunari begirako keinuak eta?

Ez zaizkit batere gustatzen, baina batzuek egiten dituzte. Beno, gurean ez dago hain zabaldua, baina Errenterian badago halakoak egiteko zaletasuna duen bat edo beste. ■

Argazki bilduma



BEDUA ITURGINTZA S.L

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industrigunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3 Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKJNDEGIA
SANTXO AUZOAN, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943860000
943860612
FAX: 943860977
errot@errot-okjndegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilik
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu sarekontua
konpromisorik gabe.
DOAN

Beheko plaza tel./faxa: 943 143 395

FARMA ZUMAIA

Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Ume eta haurrentzat, deketikoak, kosmetikakoak, harika eta eskuen zaintzarako...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dieteta, Naturopatia, Hidrologia, Flores de Bach, Masajeak (Terapeutikoak, Kiriolentzako, Laxatiboak, Estresaren, Artrositasaren, Buruko minen, Zirkulazio arazoan... kontrakoak), Akupuntura: honatzean eta horratzean gabe.

BASADI KALEA, 3 - BEHEA - ZUMAIA

Galdona



burdindegia

Mendara marmela, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA

Era gutxiarik instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



Txomin Agirre kaia Tel. 943862181



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate
Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, behea
tel./faxa 943 865 020
goldengateinsti@telefonica.net

Beñat **LIZEAGA**

Preso ohia

“PRESTATU BAINUJANTZIA, ITZURUNEN BAINUA HARTU BEHAR DUGU-ETA!”

TESTUA: GORKA ZABALETA
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA,
IMANOL AZKUE, GORKA ZABALETA ETA
ANDER AGINAGALDE

Espetxealdia atzean
utzita, etxean da
jadanik Beñat Lizeaga.
Amesgaiztoa nola bizi
izan duten kontatzeko
eskatu diegu, eta
etxeko sukalderaino
sartzen utzi
digute.



IRRIBARREA

*Hainbeste
sufrimenduren
ondoren, irribarrea
itzuli a lizeagatarren
etxera.*

Praka motzetan, baina jertsea jantzita dago Beñat Lizeaga Zumaiara iritsi zenetik. “Aranjuezen sekulako beroa egiten zuen, eta hona etorri naizenean, hotzez. Lagunek ere esan didate, zer egiten ote dudan jertsea jantzita”. Sukalderaino eramán gaitu. “Amona Begoñaren bizkotxoá probatu behar duzue”, eskaini digu. Ezin tentazioari muzin egin, eta kafea ere berotu ditu, bustitzeko. Familiako beste hiru kideak iritsi dira denda itxi berritik: Mari Bego ama, Mikel aita eta Josu anaia. Sukaldeko mahaiaren bueltan eseri gara, sagardo botila lagun. Bizipenen pelikula osatzen hasi gara, atzeranzko kontaktizunean. Nabaria da poza itzuli dena lizeagatarren etxera, baina, tarteka, malakoak ere bistaratu dira begietako leiho zabaletan. Emozioen olatua ez da oraindik baretu.

Aranjuezko espetxe atariko lehen elkarrizketa hartan zenioen ez zenuela sinetsiko aske zinela biharamunean etxeko ohean esnatu arte. Nolakoá izan zen esnaera hura?

Beñat Lizeaga: Ba, kartzelako ordu berean esnatu nintzen, 07:30ean. Errutina horretara ohitzen zara. Baina zure ohean esnatzea oso ezberdina da. Ziegaren espazio bikoitza dauka gelak, liburuz beteta dago, beste kolore bat du, ez dago txapako ate hura, atea egurrezkoa da; eta ez da irekitzen kanpoak nahi dutenean, zeuk erabakitzen duzu noiz irten. Ohea bera ere handiagoa da, *recuentoko* soinua ere falta da, ateko leihatila txikiaren txapa hotsa. Kartzelan, goizero-goizero pasatzen dira funtzionarioak, zortziak laurden gutxi aldera.

Mikel Lizeaga (aita): Bizilagun baten pertsiana soinuak esnatu zuen...

Beñat: Saiatu nintzen berriro lo hartzen, baina ezin. Errutina

ezin da egun batetik bestera aldatu. Jaiki eta sukaldera joan nintzen.

Mikel: Gure gela ondolik pasa zenean, eskua altxa nion, eta bere atzetik jaiki nintzen. Harrituta gelditu nintzen ikustean nola alde batetik hasi eta armairu guztietan begiratzen hasi zen, banan-banan, bestalderaino, hozkailuraino, ate horiek zabaltzeko eskubidea ukatua izan balu bezala. Hozkailura iritsi zenean, atea zabaldu, barrua behatu eta horrela esan zidan: “Aita, hau duk hozkailua, hau; han ez zegoan honelakorik!”.

Beñat: Gure ziegan ez zegoen horrelakorik, ez Ziega bakoitzean bi lagun geunden. Komuna, dutxa, bi ohe “literak”, bi mahai txiki eta tiradera batzuk arropa sartzeko. Han ez genuen besterik. Legez, gelan ezin da jatekorik eduki, baina fruta pixka bat edo txokolatea igotzen genuen, tarteka jateko.

Beraz, jaiki eta armairuak behatu ondoren, gosaldú egingo zenuen, ezta? Zuk aukeratutako lehen gosaria, aspaldiko partez.

Beñat: Bai, pare bat arrautza egosi gosaldú nituen, fruta ere bai.

Mikel: Bi ez, hiru! —eskuarekin hiru hatz erakutsiz—.

Beñat: Hemen inspektorea! [barre algarak]

Mikel: Ez, ez... Poza eman zidan gogo horrekin ikustea.

Mari Bego Urkidi (ama): Dena dela, gosaldú baino lehen, leihotik amona Begoña ikusi genuen bere etxeko balkoian [ja parez pare bizi dira]. Onintza [Ostolaza] lehengusua, abokatu dena, amonarekin zegoen, eta esan genien etxera etortzeko gosaltzera. Jokin, Amaia eta umea ere etxera etorri ziren gosaltzera, eta Arantza eta Imanol ere bai [senitartekoak denak].

Beñat: Familiar gosaldú genuen, etxeko balkoian.

Mari Bego: Sekulako gosaria, aspaldiko onena. Erabat pozik.



EMOZIOA

Aranjuezko kartzelatik atera zen uneko bi argazki.



“Etxe hau triste zegoen. Hogei hilabete hauetan Beñat izan da gure kezka”

Beñat: Gosaria hartzeko ilaran egon beharrik ez Kafesnea galletekin edo olioaz betetako txurroekin ematen ziguten kartzelan. Eta asteburu bazen, bollo lehorren bat.

Senideekin gosaldu ondoren, lehen bisita nori egin zenion?

Beñat: Aurrena Maria Jesusena joan ginen, Patxiren amarengana [Patxi Aristi]. Harekin egon ondoren, Inpernupen zerbait hartu eta baserrira joan ginen, Astigarragako familiarengana.

Mikel: Baserrian bazkaldu genuen, bi izebek, amonak eta guk. Amona-eta siestara joan ziren eta Beñatek erabaki zuen mendi buelta egin behar zuela, han inguruko parajeetan. Haize premia zeukan.

Beñat: Batez ere, hazienda inspektionatu

Mikel: Lehen berak garbitutako lur saila da, eta nahi zuen ikusi ondo zaindu ote dugun denbora honetan...

Beñat: Ba, ez duzue azterketa pasa [barre algarak]

Mikel: Gero joan ginen ikustera txakurrak, txerriak eta ahuntzak; eta, ondoren, goi aldera, behiak ikustera. Pioletegiko gai-

nalde hartan mendia zelaia da, erabat ordeka, eta Beñat hantxe gelditu zen, geldi, inguruari begira, espazioari begira, artean ezin sinetsirik non zegoen. Ordubete edo egin genuen han.

Mari Bego: Isil-isilik egon ginen hirurok. Handik Zumaia bueltan, hileko azken ostiraleko presoan aldeko elkarretartzean izan ginen.

Eta Zumaian sanpedroak. Zenbat lagun besarkadak, musuak, animoak...

Beñat: Bai, sanpedroak egokitu ziren eta izan nuen parranda txikiren bat egiteko aukera. Bi metro egin eta norbaitekin gelditu. Horrela izan da. Baina esan zidaten, orain aprobetxatzeko, hemendik bi hilabetera denak ahaztuta egongo dira-eta...

Denboran atzera egingo dugu: 2012ko ekainaren 28a, osteguna. Kartzelan esnatu zinen azken eguna. Artean, ordea, zeuk ez zenekien.

Ostegunetan atletismoa izaten genuen. Gosaldu ondoren, hara joan nintzen. Ordu erdiko korrikaldia egin, beste euskaldunekin berrikerian egin eta modulura bueltatu nintzen. Noizean behin, lagunei deitzen diet telefonoz eta pentsatu nuen bati deitzea, baina telefonoa itzalita zeukan. Ekonomatora “espetxe barruko dendara” joatea pentsatu nuen, kafea hartzera. Orduan, ziegako lagunak deitu zidan, urrutitik, builaka: “Beñat, Beñat, etor hadi!”, “Zer ote du aldrebes honek”, pentsatu nuen nik. Baina aurpegian sumatu nion ez zuela betiko keinua. “Maddiri [Gallastegiri] deitzeko, askatzen zaituztela!”, esan zidan. Momentuan zuri-zuri gelditu nintzen. Maddiri deitu nion eta horrela esan zidan: “Prestatu bainujantzia, Itzurunen bainua hartu behar dugu-eta!”.

Mari Bego: Goizean, hamarrak laurden gutxiak aldera, abokatuak deitu zidan, ordu bata baino lehen fidantza ordainduz gero, egunean bertan libre utziko zutelako. Susto hartan,

GOROSTI BODEGA
 ELORRIAGA AUZOA, DEBA, GIPUZKOA
 Tfno: 670408439 Juan M^o Echave
 692605223 Isabel Etxaniz

flysch
 txakolina

Geluriako Txakolina
 DENOMINACION DE ORIGEN



Cure-Txokoa
 aberna



Upela plaza, 4
 20750 Zumaiak
 Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API
Ibaitain
 inmobiliaria

Ricardo Azkue
 API 399

Txomin Agirre 4, behea
 tel. 943 862 651
 faxa 943862748

rjazcue@euskalnet.net

ilarzi



Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpotaatuak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI
ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua

Basod, auzategia, 10 tel. 943 861 853

Xala


Pintxoak eta otartekoak



Txomin Agirre kala, 8

KABI Patata Etxezarreta, 15
 943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZTH-rekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517

KANTAU
TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatuak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

Kresala
 Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

ONGI-ETORRIA

Ongi-etorri jendetsua egin zitzaion kartzelatik iritsi berritan.



ni fidantza bila joan nintzen. Eta neure buruari esaten nion: “Mutil honek enteratu egin behar du”, berez, arratsaldeko bostak arte ez zitzaiolako joango agente judiziala jakinaraztera. Okurritu zitzaidan bere ziegako kide Asierren amari deitzea: “Amaia, Asierrek deitzen badu, Beñat askatzen dutela esateko”. Ni dendan egongo nintzenez eta gure telefono mugikorrak ez daudenez onartuta, Maddi lagunari deitzeko. Hala izan zen.

Albistea jaso zenuenetik kartzelatik atera zinen arte hamar bat ordu pasa ziren. Zer egin zenuen denbora tarte hartan?

Lehenengo gauza, patiora irten eta han ibili, atzera eta aurrera, nerbioak askatzeko. Planak egiten hasi, arropak jaso... Ez nuen ezer bazkaldu. Agente judiziala arratsaldeko bostetan etorri zen eta hark jakinarazi zidan baldintzapeko askatasuna ematen zidatela [astelehenero sinatu behar du Zumaiako bake epaitegian, eta baimena eskatu Espainiako mugetatik irteteko]. Hura sinatu, modulura joan, arropak, liburuak eta bestelakoak hartu, eta sarrerara eramanez ninduten. Han ordubete izan ninduten. Eta azkenik, kartzelatik irten eta han nituen zain senideak eta lagun batzuk...

Mikel: Ateratzeko garaian, urrutira ikusi nuen gazte bat bazez torrela, ateak nola zabaltzen eta ixten ziren bera pasa ahala. “Hau duk!”, esan nien han geundenei. Erkiri [Iñigo Erkiagarri] esan nion, “Hura ez al da Beñat?”; baiezkoan ari ginela, “Mari, hemen dinagu!”, esan nion amari. Hura esan eta han joan zen aurrera metro batzuk, funtzionarioak alto eman zion arte. Atzera egin behar izan genuen, Beñat irten zen arte. Mari Bego: Eta azkenean, atera zenean, tsunamia...

Mikel: Beñatek handik lehenbailehen alde egin nahi zuen

Beñat: Bai, badaezpada ere.

“Bateriak erabat kargatuta joaten ginen [bisitara]. Buelta, berriz, lur jota”

Mikel: Baina senide batzuk oraindik bidean zirela eta laster iristekoak zirela, azkenean kanpoaldeko aparkalekuan zain egotea onartu zuen, eta han pixka bat lasaitu zen. Han hasi ginen denok pixka bat sinesten, baina nik garbi esan nuen Zumaiara iritsi arte ez nuela sinetsiko.

Aranjuezko kartzelatik etxera egindako azken bidaiak hark ez zuen zerikusirik izango bezperan [asteazkenean kartzelan izan ziren, bisita arruntean] eta aurreko hilabete piloan egindako joan-etorriekin...

Mikel: Joan, joaten ginen bateriak erabat kargatuta, iristeko irrikaz. Buelta, berriz, lur jota. Hirurok isil isilik. Bezperako bidaiari, halako batean, isiltasuna Josuk [Beñaten anaiak] hautsi zuen: “Aita, zenbat kilometro egiten ditugu bidaiak bakoitzeko?”. “Josu, justu mila kilometro”. Eta orduan amak esan zuen: “Ez lidake baterie inportako bihar berriro bueltan etorri beharko bagenu”.

Beñat, bisitak nola hartzen dituz berriz dagoenak?

Beñat: Animoa altzatzen dizu. Senideak eta lagunak etortzen zaizkizu,

notiziak ematen dizkizue. Hiru ordu laurdenak segituan pasatzen dira.

Mikel: Oso denbora gutxian gauza asko esaten genizkion elkarri.

Semearen kartzelaldia zigorra izan da zuentzat ere.

Mari Bego: Ikaragarria. Etxe hau triste zegoen. Gu triste geunden. Hogei hilabete hauetan beti Beñat izan da gure kezka. “Deitu al duen, zer beharko ote duen, enkargu hau eman behar zaio”. Bera izan da etxe honetako erdigunea. Dena Beñaten bueltan mugitu da.

ONGI ETORRI, BEÑAT!

Doinua: ETaren su-etenetik

Zuzenean Zumaiara kotxean Aranjuzetik txoria kabira bueltan kaiola ilunenetik nahiz ta kaioletan txori asko eduki oraindik pauso bat egingo degu kaiola huts bakoitzetik baina orain eta hemen pentsatu behar diat nik famili bat koadrila bat herri bat daukak atzetik ta eurekin gozatzeko etorkizun bat aurretik

Markel Peñalba



Beñat gure besarkada eta ongietorria ikusteko desiatzen geunden ya hire irria umila eta gaztea mutil eredugarria gaztetxetik honuntzaino herri batek ekarria loreak mozten dituzte baina ez udaberria aupa Beñat Lizeaga aupa euskal gazteria gure eskuetan dago biharko Euskal Herria

Jon Maia

Kofraian ta Amaiaiko plazan hazi eta hezia gaztetxean, herrigintzan gurekin bat ikasia Aranjuez edo urria Izpura ez dugu ahantzia ta gaur Lize ze posea ta a ze eleganzia antolakuntzaz borrokaz lortuz independentzia segi aurrera bizirik dago gure esentzia herri askok ez du herri hontako militantzia

Maddi Gallastegi

GAZTETXEAN

Aranjuetzko espetxetik zuzenean Gaztetxera joan zen Beñat, han zain zituen lagunekin biltzera.



Eta nola egiten zaio aurre semeak etxean utzitako hutsune horri?

Mikel: Gure etxean ez dira inoiz ateak ixten. Ba, ba al dakizu zer den, bai etxetik irten edo iristen ginen bakoitzean, bere gelara begiratu eta habia hutsik zegoela ikustea? Gogorra baino gogorra-goa da. Eta Josuk ez du ezer esan orain arte, baina gizagaixoak hamaika bertso dauzka idatzita, barrena askatzeko. Ez dakit non dauzkan gordeta, berak bakarrik irakurtzen ditu. Mahaian ere sumatzen zen, eseri orduko bera falta, eta sekulako ezina. Eta ez zara ohitzen.

Kartzelako denbora oso luze egingo zaio barruan dagoenari. Zeuk zertan ematen zenuen eguna?

Beñat: Saiatzen nintzen egunero kirola egiten. Gimnasio txiki bat dago, edo bestela korrika, futbolean Ikasteko aukera ere eman ziguten, UNEDetik [Psikologia ari da ikasten]. Liburu batzuk ematen dizkizute eta gero azterketak izaten dira. Errutina hartzen duzu: goizean kirola egin, gero kafe bat hartu, ikasi, siesta egin arratsaldean egunkariak irakurri

Ongi etorriko bideoa



OMENALDIA

Egun osoko ongi-etorri
festa egin zen
uztailaren 7an.



Zumaiako argazkiak eskatzen omen zenituen...

Beñat: Bai. Herria nondik nora doan kontrolatzea komeni da [barre algarak]

Mari Bego: Eta lagunena ere bai, aurpegiak han edukitze-ko...

Beñat: Han nahikoa zen argazki bat edo eskutitz bat eguna betetzeko.

Kartzelalditik oraindik atzerago egiten badugu, Izpuran egin zenuten agerraldia, aurrez lau hilabetez sasian, ezkutuan, egin ondoren. Lau hilabete haiek ere ez ziren gozoak izango.

Beñat: Ihesi zaudenean etxekoekin harremana erabat mozten da. Nik nahiago ditut kartzelan egondako hilabeteak ihesi egondakoak baino.

Mikel: Garai hartan gogorra egin zitzaidan kalean jendeak galdetzen zuenean ia berririk ba ote genuen, geuk ezetz esan eta jendeak erantzun: “Nola ez dakikela, zerbait jakin behar duk, hori ez duk normala”. Niretzat errespetu falta zen hura. Zeu barruak irakiten zaude eta horrelako erantzunak jasotzea...

Mari Bego: Mikel, ez da errespetu falta. Zumaian jendeak asko maite gaitu. Beraien elkartasuna adierazteko modu bat da. Seguru nago jendeak bere borondate onenarekin galdetu zuela. Ni harro nago Zumaiako herria nola portatu den gurekin. Harro nago. Familia, lagunak eta herria, alkatearengandik hasita. Nik beti jaso dut babesa. Begirada bat, eskua eman, ukitu... Eta gaur egun ere bai. Ez dena ausartzen gerturatu eta ezer esatera, begiak altxatuz egiten dizu keinua. Zer emozionantea den!

Amesgaizto honen abiapunturaino atzera eginda, duela 20 hilabete, Espainiako Polizia etxe honetara etorri zen seme zaharrenaren bila. Hura gertatu aurreko Beñat eta gaur egungoa alderatuz gero, asko aldatu al da?

Josu (anaia): Gehiegi! Adibidez, orain askoz serioagoa da, gauzak zuzenago hartzen ditu. Zerbait egin behar badu, egin egiten du. Lehen gerorako lagatzen zuen.

Mikel: Diziplinatua dela orain...

Josu: Bai.

Mari Bego: Eta zurekin harremana, Josu? Zer igarri duzu?

Josu: Normal.

Mari Bego: Nik oraindik isila bilatzen dut. Baina normala da. Oraindik ez da denborarik pasa eta gertatutakoa barneratu behar dugu. Bere bila etorri zirenean tsumani ikaragarria etorri zitzaigun gainera. Hura kanalizatu behar izan genuen. Orain beste tsunami bat gertatu da, baina hau guztiz ona. “Zer gertatu da berriro gure inguruan?”, esaten diot neure buruari. Zorionsu naiz. Nire hiru mutilak berriro inguruan dauzkate. Zorionsu naiz. Baina beste tsunami bat pasa da.

Beñat: Nik orain beste modu batera ikusten ditut gauzak, gehiago baloratzen dituzu hainbat gauza. Hori igartzen dut.

Mikel: Nik, hitz batean, diziplinatua ikusten dut. Baina oraindik ez da gehiegi aitortzen, ez du gehiegi adierazten. Baina, horrekin batera, ikusi dut hasi dela, animaliek egiten duten bezala, bere eremua markatzen, bere gelan... Eta poza eman dit. Etorri orduko amari eskatu zizkion pare bat kaxa gelan zeuden gauza batzuk jaso eta bere gustuko beste batzuk jartzeko, gela bere erara moldatzeko.

Beñat: Ziegan dena konpartitu behar genuen eta

Eta, orduan, Itzurun bainatzeko aukera izan al duzu?

Beñat: Bai, bai, baina ura oraindik freskotxo dago [barre algarak]

Aurrera begira, zer asmo dituzu?

Beñat: Udan gauzak lasai hartu nahi ditut, gozatu, kirola egiten jarraitu, lagunekin eta familiarekin egon. Beraiekin zorra daukat, hainbeste denbora nitaz pendiente egon eta gero.

Mikel: Ez daukak inolako zorrik gurekin. Familia bat gaituk. ■



kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatekxoa • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901

Nikol  **Enea**

TABERNA

Amaiako plaza



NOLA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

636 867 812 (Zumaia)
609 834 438 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaia
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar industrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

www.carroceriasnoia.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943 861 691



ETXE GINTZA
OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortia Industrigunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beobide Ibiltoikia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401



BI BELAUNALDI OLATUEN GAINEAN

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Zumaiaiko surfaren iragana, oraina eta, nork daki, agian etorkizuna biltzen dira familia berean. *Peke* Yeregi izan zen Zumaian surfa egiten lehenengoetakoa. Haren lekukoa Imanol semeak hartu du eta 16 urterekin Europa mailako txapelketetan lehiari dabiren surflari honena da etorkizuna.

Jesus Mari *Peke* Yeregik (“Zergatik deitzen didaten *Peke*? Ba, umea nintzenean oso txikia nintzelako”) ez du elkarrizketako protagonista izan nahi: “Agian onena da ni ez agertzea artikulatu honetan”. 1970eko hamarkadan bere anaia eta lehen-gusuekin batera Zumaian surfaren aitzindarietakoa izana da, baina Imanol semea eman nahi dio protagonismoa. Tenerifen surfean ariztetik etorri berria da 16 urteko gaztea. Azal beltzaranak eta ilearen kolore ia zuriak agerian uzten dute itsasertzean igarotako ordu pila. Isilik jarraitzen du aitaren eta kazetari honen hizketaldia. Azkenean baiezkoa eman du *Peke*ri: “Benoa, nik iraganaz hitz egin dezaket eta berak orainaz eta, ikusiko dugu, etorkizunari buruz”.

Iragana

1976. urtea. Kodak etxeko argazkien kolore bitxi eta zaharkitua dute udako egunek. Zeregin handirik ez, eta herriko gazteak Itzurun eta Santiagoko hondartzetan pilotzen dira. Urertzean igarotzen dute eguna. “Egun osoa hondartzan pasatzen genuen: harraldean olagarroak hartzen, urpeko arrantzak egiten edo txanperoarekin olatuak hartzen. Zer gehiago egin genezakeen garai hartan?”, galdetzen dio *Peke* bere buruari.

Asko aldatu da Zumaia urte hauetan guztietan. Gaur egun, surflarien mugimenduak hondartzako bizitzaren parte dira, baina garai hartan surfeko taulak arrotzak ziren Zu-

TXANPEROTIK TAULARA

12-13 urterekin hasi zen olatoak hartzen, txanperoarekin. 16 urte urterekin eman zioten lehen taula. Itzurunerako egokia ez, eta Santiagora joaten ziren olatoak hartzera.



EUROPAKO ONENEKIN

Europar mailako Projunior txapelketan buru belarri murgilduta dago Imanol. Kanariar uhartetan aritu da surfean eta Portugal, Galizia, Frantzia eta Sopelan ere izango da.



maiako hareetan. “12-13 urterekin hasi nintzen txanperoarekin ibiltzen. Urte haietan oso gutxi zituzten taulak Zumaian. Bat Jose *Carteroren* semeak zuen. Gure osaba Julianek ere bazuen bat. Zumaian surfean hasiko zen lehenengoetakoa izango zen. Baina ez zuten surfa ondo ezagutzen; gutxi praktikatzen zuten eta ez zioten kirolari gustua hartzen. Sorosleek ere bazuten taula bat, baina esango nuke lagundu baino traba gehiago egiten zuela”.

“Osabak ez zidan uzten bere taula erabiltzen; arriskutsua zela zioen”, dio umoretsu. 16 urte bete zituenean eman zioten Pekeri bere lehen surf taula. “Orain Imanolek duen adinarekin eman zidaten. 2,35 metroko luzera zuen (oraingoek 1,70 metroko luzera dute), eta tripa handiko olatu handietan ibiltzeko egokia zen. Lema bakarrekoa zen eta ‘inbentoa’ (txorkatila taularekin lotzen duen soka edo goma) jartzeko lekurik ere ez zuen. Aitak Ondartxon zuen tailerrera joan nintzen ‘inbentoa’ jartzera. Zulatzeko makinarekin zuloa egin nion leman. Soka mutur bat taulari lotu nion eta bestea futboleko atezainaren belaunetako bati. Gero Itzurunera joaten ginen..., eta ez genuen ezer egiten”.

Itzurungo olatueta arrakasta handirik izaten ez zuela gogoratzen du Pekek. “Itzurungoak kortxoan ibiltzeko egokiak dira. Taularen muturra uretan sartzen zitzaidan eta irauli egiten nintzen. Olatu onak zeudenean txanperoa erabiltzen nuen, taularekin ez nuen-eta olatu bat bera ere hartzen. Urte batzuk geroago ohartu nintzen Santiagoko olatua desberdina zela, biribilagoa eta taularen gainean tente jartzeko auke-

ra ematen zidan”. Orroagako olatueta gutxi ibili zela dio. “Haitz gainean ibiltzeak beldurra ematen zigun hasieran; buroa puskatzeko beldurra genuen. Hasieran kaskoarekin ibiltzen ginen, baina gero konturatzen zinen kontrol pixka bat izanda arroken gainetik ibil zintezkeela”.

Urte hauetan guztietan gizarteak surfarekiko duen filosofia edo pentsaera asko aldatu da. Iritzi berea du Pekek: “Garai hartan ez zegoen surf girorik herrian. Taularekin hondartzara joaten nintzenean atzealdetik joaten nintzen inork ez ikusteko, gurasoak lotsatu egiten ziren-eta. Semea arraunlaria, futbolaria, aizkolaria edo harri jasotzailea izatea ondo ikusita zegoen. Baina surfaria? Semea tontoa atera izana bezala zen. Surfa pijoen zerbait bezala ikusten zen”.

25 urte zituen arte jarraitu zuen Pekek surfean. “Lanean hasi nintzen eta ondorioz forma fisikoa galdu nuen, eta surfak eguneroko praktika eskatzen du. Sentsazioak inoiz baino hobekak ziren, baina egia da lortutako maila oso baxua zela. Berandu hasi ginen eta materiala ere ez zen ona. Zarautzen ez bezala –inguratzen ziren atzerritarrekin ikasten zuten eta olatuak ere egokiagoak ziren han–, ikasteko aukerarik ere ez genuen. Ez genuen autorik eta ia ez ginen herritik ateratzen. Telebistan ikusten genituen lau irudiez baliatzen ginen. Gero, noizean behin, surfari bat ikusten genuen Orroagan, eta pentsatzen genuen: ‘Zer polita den hau!’”.

Olatuak hartzeari utzi dio, baina surfarekiko zaletasuna ez du inoiz galdu, eta seme-alabei pasa nahi izan die maitasun hori. “Nire ustez surfa dagoen kirolik politena da. Arraunean

egin dut; futbolearen ere bai; arrantza eta ehiza ere gustatzen zaizkit, baita urpean igeri egitea ere; baina inoiz ez dut aurkitu surfa bezalakorik. Seme-alabak handitzen joaten zirenean heinean taula gainera igotzen nituen. Jone alabak surfa egin zuen ebakuntza bat izan zuen arte; ez zuen hain gustukoa ere. Imanol zazpi urterekin hasi zen eta gaur arte. Denborarekin, haurrei erakusten nindoan heinean, praktika ere pixka bat errekuperatu nuen, baina ez nintzen gai olatu bat bera ere hartzeko!”.

Oraina

Zazpi urteko ume txiki bat zen Imanol Itzurungo olatuak hartzen hasi zenean. “Udan bero egiten zuenean uretan sartu eta bainatzea gustatzen zitzaidan. Lagunak ere han izaten zirenean eta oso gustura egoten nintzen uretan. Gero, beste denak bezala, kortxoan ibiltzen hasi nintzen. Kirol honetan jarraitzea beste kontu bat zen: batzuei gustatzen zitzaie, eta besteek ez. Niri asko gustatzen zitzaidan eta orain arte jarraitu dut”.

Olatu gainean etzanik joan edo tente? Bodyboarda edo surfa? Biak probatu ditu Imanolek eta surfa aukeratu zuen. “Badago desberdintasuna bien artean. Surfak zailtasun handiagoak ditu, nire ustetan. Paipoan etzanda zoaz eta tente joanda baino erosoagoa da. Uste dut maniobra zailak lortzeko paipoa errazagoa dela”.

Bere adin arteko maila gorenean dabil gaur egun Imanol, europar mailako Projunior txapelketan. Maila honetara heltzeko kontaezinak dira prestatze lanetan eta entrenamenduetan igarotako orduak. Etenik ez duen eguneroko lana eskatzen du goi mailan aritzeak. “Forman egon nahi baduzu, egunero egon behar duzu uretan sartuta. Nahiz eta egun batzuetan gaizki pasa eguraldia edo itsasoaren egoera txarra delako, gero horrek bere fruituak ematen ditu, eta itsasoa ondo dagoenean besteak baino hobeto ibiltzen zara. Txapelketetan maila onen ibiltzeko egunero landu behar dituzu alde fisikoa eta teknikoa”.

Urarekin lotura zuzena duten kirol denetan bezala, negua da garairik gogorrena kirolarientzat. Imanolentzat ere hala da. Hotzarengatik ezin izaten du itsasoko uretan sartu, eta gimnasioan eta igerilekuan lantzen du gorputza. “Lan fisiko guztia neguan egiten dut. Gogorra da, baina horri esker urte osoan zaude forman”. Udaran alderdi teknikoa gehiago lantzen du. Eskolarik ez duenean, 09:30ak eta 12:00ak bitartean entrenatzen du Zarautzen. Etxean bazkaldu eta gero, arratsaldean Zarautzera itzultzen da. Olatuak egonez gero, uretan

sartzen da. “Itsasoa bare dagoenean igerilekura joaten gara gorputza aktibo mantentzeko”.

Denbora librerik izaten al duzu?

Gutxi...

Sakrifizio handiak egiten dituzu surfean aritzeko. Zer da gehien gustatzen zaizuna?

Beste kirol askotan ez bezala, surfa ez da taldean egiten den zerbaite. Bakarrik egoten zara. Uretan nagoenean lasai egoten naiz nire gauzetan pentsatzen. Askatu egiten naiz.

Aitor Francesenarekin entrenatzen da Imanolek. Besteak beste, Aritz Aranburu, Hodei Collazo edo Ibon Amatriain surflarien entrenatzaile izana, azken bi urte eta erdi hauetatik hona gidatzen du zumaiar gaztearen ibilbidea. Leundu beharreko diamante bat bezala ikusten zuen Imanol hasiera hartan. “Ezagutu nuenean teknika oso ona zuen, baina indar txikia. Alde horretatik hobetzeko asko zuen, baina teknika ahaztu gabe”, zioen entrenatzaileak orain urte eta erdi egindako elkarrizketa batean.

Horren jakitun da Imanol, baina teknikaren aldeko defentsa sutsua egiten du. “Teknika lortzea zaila da; uretan asko ibili behar duzu hori eskuratzeko. Fisikoa, berriz, urteek ematen dizute; gorputza egiten doa denborarekin. Maniobra batzuetarako potentzia eta pisua behar da, eta hori denborarekin lortzen da. Baina teknika da nire ustez lortzen zailena”. Hori hala izanda ere, entrenatzailearen aholkuak edo aginduak ez ditu alde batera uzten. “Alde fisikoari hiruzpalau egun ematen dizkiot astean. Teknikoa, berriz, egunero lantzen saiatzen naiz, ahal izanez gero”.

Entrenatzaile bezala Francesena “gogorra” dela dio, “baina behar da horrelako pertsona bat, bestela ezin zenuke maila ona lortu. Badaude entrenatzaile batzuk errazena egiten dutenak: dena ondo doala esan. Baina horrek ez dizu maila igotzen laguntzen. Aitorrek beti exijitzen dizu. Nahiz eta akats txikiak izan, esan egiten dizkizu”. Harreman estua dute entrenatzaileak eta kirolariak, eta hori Imanolen hitzetan nabari da: “Denbora

honetan asko ikasi dut berekin. Kirolek kanpo, bizitzan normalean gertatzen diren gauzak ere azaltzen dizkit. Kristoren esfortzua egiten ari da nirekin”.

Bere adineko edozein gaztek bezala, ikasturteak irauten duen denboran entrenamenduak eta ikasketak uztartu behar izaten ditu. Hori omen da beretzat zailena. “Gogorra da ure-



Peke “Itzurunen olatu onak zeudenean txanperoa erabiltzen nuen, taularekin ez nuen-eta olatu bat bera hartzen”



La Prima Vera
pizzeria

Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353



RUBIO
Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERA,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talaxia
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370



TALAI-PE
jatetxea-erretegia

Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392



Tapaia
Taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondok (Modilloo)
Salxitzak, oilaskok...
Garagardok dukeron

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

**TXORTENA
JATETXEA**

Eguneko menua, Asteburukoa,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazueltak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA



Txingurri
loradenda

Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak



UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA

Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Erekitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsianak
*Armaru enpolutuen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323



Xanti
Osa
Arantxa Azkue

Amalako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385



Zalla

• plater konbinatuak
• ogitartekook
• oilasko erreak

Urola Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA



ZUMAIA
AUTO-ESKOLA

- Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
- Praktika eta azterketak Azpeitian
- GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA



EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.

José Rey Alfaro
Gerente

Santixo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumalamotor@telefonica.net

Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

tatik atera, nekatuta egon, eta gero ikasten jartzea. Ez duzu batere gogorik izaten ikasteko, baina esfortzua egin behar da. Nahikoak lortuta ere gustura daude familian, baina saiatzen naiz nota hobeak lortzen”.

Kirol maila mantentzeari garrantzia ematen dio, baina ikasketak jarraitzeko kontuan zorrotza da Francesena. “Oso garrantzitsua da ikasketekin jarraitzea eta kirol jarduerarekin uztartzea. Surfetik bizitzea oso zaila da eta garrantzitsua da etorkizunerako ikasketak izatea. Era guztietako surf-flariak ezagutu ditut, baina onak oso inteligenteak dira. 20 minutuko txanda batean taktikak planifikatu behar dira eta horretarako beharrezkoa da inteligentea izatea”.

Zer ari zara ikasten?

(Imanol): Batxilergoa. Kostatu zait lehen urtea ateratzea. Salto bat bezala dago. Denbora gehiago behar da gauzak egiteko. **(Peke):** Oinarri bat izan behar du bizitzan, flotagailu bat. Surfa egiten dutenetatik, % 95 Imanol baino okerrago doa ikasketetan. Egiten ari dena oso gogorra da. Ordu asko egiten ditu entrenatzen, eta gero ikasi behar izaten du. Kurtsoa ondo atera du. Denek dute lehiatzeko gogoia, baina esfortzua kudeatzeko gaitasunean dago aldea. Hainbeste entrenatu eta gero ikasteko gaitasuna baduzu, horrek erakusten dizu zein den zure balioa. Ikusiko dugu datorren urtean. Zertxobait gehiago kostatuko zaio: surfean, fisikokan eta teknikoan mugak igo beharko ditu, bere aurkari denak ere gora egingo dutelako, eta eskolan ere parekoa gertatuko da. Urtebete zaharragoa ere izango da”.

Peke, gai izango zinateke Imanolen surfeko ibilbidea mozteko ikasketetan behera egiten badu?

Zaila da hori erabakitzea. Ikusi beharko genuke zer gertatzen den. Lehen neurria kirol errendimendua zertxobait jais-tea eta ikasketena igotzea izango litzateke. Zaila da... Bere helburua surfetik bizitzea bada, ondo dago oinarri bat izatea, baina bere aurkariak ez liokete ihes egin beharko. Oraingoz pelotoian doa eta gauzak ondo antolatzen baditu, gai da nahi duena lortzeko. Berak ikusi beharko du zer nahi duen. Guk ezin diogu moztu.

Etorkizuna

Bederatzi urte zituenean hasi zen txapelketen munduan. “Ondo moldatzen naiz. Han ere ikasi egiten da eta esperientzia ona da”. Urte hauetan hainbat txapelketatan hartu du parte, baina gogoan du oraindik txikia zela Zarautzen jokatu zuen proba. “Zarautzen egin zen munduko proba batean hartu nuen parte txikia nintzela. Nahiz eta kanpoan geratu nintzen, oso gustura aritu nintzen surf egiten. Jende asko zegoen begira eta nahiko haluzinatuta geratu ziren nirekin. Oso gustura atera nintzen txapelketa hartatik. Gero beste batzuetan ere ondo aritu naiz, baina hark ilusio handia egin zidan”.

Gaur egun europar mailako Projunior txapelketan zen-

tratuta dagoela dio. Bospasei probak osatzen dute zirkuitu hau. “Krisiagatik proba kopurua jaitsi egin dute”. Kanariar Uhartetara joan zen orain hilabete pasa proba horietako batean parte hartzera. “Olatu zailak zeuden. Minutu baten faltan nire txandako buruan nengoen, baina azken unean kalera bota ninduten. Baina, beno, aterako dira gauzak”. Hurrengo hilabeteetan beste probetan hartuko du parte Portugalen, Frantzia, Galizian eta Sopelan.



Oso gaztea izanda ere, amets bat betetzeko aukera badu Imanolek: mundua ezagutzea. “Asko gustatzen zait bidaiatzea”. Elkarrizketa osoan zehar serio egon da, baina une horretan irribarrea atera zaio. Australia, Panama edo Hawaii bezalako lekuetan hartu ditu olatuak. “Hawaii finalerdietara heldu nintzen. Maila handia dago han”.

Munduan zehar bidaiatzeko zortea du, baina dena ez da arrosa kolorekoa. “Garai batzuetan gaizki pasatzen dut. Azterketa garaian, adibidez. Irakasleak laguntzen saiatzen dira eta azterketak egunez aldatzen dizkirate. Baina kanpoan ezin izaten dut ezer egin. Beroa, egun osoa uretan... Nahiko zaila egiten zait”.

Bidaietan ez da bakarrik egoten; Euskal Herriko beste lagun batzuekin bidaiatzen du. “Horrela, hitz egiteko norbait izaten dut. Pixkanaka beste lekuetako jendea ere ezagutzen noa. Jende jatorra da”. Bidaiatzeko orduan Aritz Aranburu surf-lari zarautzarrak laguntza handia eskaintzen diela azaldu du. “Bidaiatzeko, onena da Aritz. Berekin leku denak ezagutzen dituzu eta ez zara inoiz galtzen. Asko laguntzen gaitu. Teknikoki aholkuak ematen dizkigu eta babesleekin ere laguntzen gaitu”. Babesleak kirol honetan behar-beharrezkoak direla gaineratu du. “Babeslerik ezean, etxean bakarrik lehiatu ahal izango genuke”.

Aritz Aranburu “jarraitzeko moduko” pertsonatza josten du, baina txikitako idoloa Igor Muniain zuen Imanolek, “eta oraindik ere bada”.


Adin honetako edozein gaztek bezala, Imanolek baditu bere ametsak: “Surfetik bizitzea, bidaiatzea eta leku asko ezagutzea”. “Proba dezala”, dio Pekek. “Dituen ametsak politak dira. Selektibitatea egin dezala eta gero urtebetez edo bi urtez proba dezala surfa. Horrek erakutsiko du jarraitzeko balio duen edo ez. Baina ez dadila penarekin geratu. Surfak gauza on asko ditu: mundua ezagutuko duzu, beste herrialde eta kultura batzuk ezagutuko dituzu, ingelesa ikasiko duzu... Gauzak ondo ateratzen badira, seinale izango da asmatu duela. Ezetz? Beno, zerbait aterako du.

Imanol, aitarekin hasi zinen kirol honetan. Orain nork ematen dizkio nori aholkuak?

Orain gutxi arte berak ematen zizkidan. Txapelketak kanpotik ikusten zituen eta nik uretan sumatzen ez nituen akatsak azaltzen zizkidan. Baina orain bertan nik aholku gehiago ematen dizkiot! Surfaz ari naiz, e? ■

IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz,
esamolde edota esaldiak biltzen ari gara.
Inoiz entzunak, zein asmatuak.

Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com  #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailaren 5a baino lehen. (Uztailaren 8ko Berria jakingo da irabazlea).
Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe eta Xabier Paya.




GORENAK
EUSKAL HERRIKO
SAGARDO GORENAK

GUZTIOK NORABIDE BEREAN
EGITEN DUGU ARRAUN.
SEKULAKO EMAITZAK LORTUZ.
LEHEN-LEHENAK IZATEKO.

HORREGATIK DARAMAGU SAGARDOEN
EUSKAL SELEKZIOAREN TXAPEL BELTZA.



Oihana **KORTAZAR** eta Ana **CONDE** | Flysch Trail-en partaideak
“BELDURRIK HANDIENA BATAK
BESTEARI DIOGU”

TESTUA: AITOR MANTEROLA

ELKARRIZKETA



PEIO ROMATET

Uztailaren 22an, 10:00etan, tentsio betean izango dira bi korrikalariak. Ezuste handirik ezean, bietako batek irabaziko du Flysch Trail lasterketa. Aurreneko aldian, Oihana Kortazarrek irabazi zuen, eta hurrengo bietan, Ana Condek.

Elkar ondo ezagutzen dute. Ez dago sekreturik bien artean. Argi eta garbi hitz egiten dute. Asko estimatzen dute Flysch Trail lasterketa, eta, aurten, biak lehiatuko dira. Bien artean irabazi dituzte aurreko urteetako hiru probak: lehen urtean, Oihana Kortazarrek; beste bietan, Ana Condek. Oso pozik etortzen dira Zumaiara korrika egitera, eta elkarrizketa hau egitera ere herrira etorri ziren, borondate guztiarekin.

Aurreneko urtean, zuk irabazi zenuen, Oihana, eta azkeneko bietan, zuk, Ana. Aurten Oihanari tokatzen zaio orduan?

Oihana Kortazar: Berdinketa egoteko bai, nire txanda da aurten. Lasterketetan, elkarrengandik gertu ibiltzen gara, eta Zumaiakoa berarentzat egokia da, azkarra delako zirkuitua. Gainera, hemengoaren aurretik lau lasterketa gehiagotan izango naiz. Uztailaren 20an, bi egun lehenago, Italian ariko naiz korrika, Dolomitetan, eta larunbat goizean hartuko dut abioia hemen parte hartzeko.

Zumaiakoa, orduan, erlaxatzeko lasterketa izango da zuretzat?

O.K.: Erlaxatzekoa ez dakit izango den, baina geroko bazkarrira gogo handiarekin joango naiz [barrezka].

2014an, Europako Kopa helburu

Espainiako Kopa osatzen duten lau probetako bat izango da aurtengo Zumaia Flysch Trail mendi lasterketa. Antolatzailen bozeramaile Bosco Garitanok iragarri duenez, helburua da 2014an Europako Kopako proba bat antolatzea Zumaian. “Espainiako Kopa osatzen duten lau probetatik egutegiko hirugarrena izango da aurtengo Flysch Trail lasterketa. Gure helburua da 2014an Europako Kopako proba bat antolatzea, eta urrats honek bide horretan lagunduko digu. Batetik, probaren kirol maila igo egingo delako; bestetik, Europakoa antolatzeko Espainiako Federazioaren babesa behar delako”.

Uztailaren 22an, beraz, Espainiako Kopa lehiatzen ari diren goi mailako korrikalariak izango dira Zumaian. Autonomietako selekzioekin eta korrikalari afizionatuekin batera, 550 laguneko tropela osatuko dute. “Kirol lehia interesgarria egongo da, hemen erabakiko baita korrikalari bakoitzak zer aukera dituen Kantabrian jokatu den azken probarako”.

Kortazar eta Conde

Dena den, norgehiagoka politena eta estuena emakumeen lasterketan gertatuko da ziurrenik. Oihana Kortazar (Elgeta) eta Ana Conde (Gasteiz), aurreko hiru aldietako irabazleak, aurrez aurre izango dira Zumaian lehen aldiz. Kortazarrek lehen Flysch Traila irabazi zuen 2009an, eta ondorengo biak Ana Condek, baina sekula ez dira elkarrekin lehiatu Zumaian. Kortazar, gaur egun, munduko onena da mendiko lasterketan, baina Ana Conderentzat oso proba egokia da Zumaia eta Kortazarri irabazteko gogotsu dago.

Irteera eta helmuga, Beheko plazan

Ibilbideari dagokionez, iazko berbera izango da oro har, baina aldaketa batzuk egin dira herriguneko zatian. Irteera eta helmuga Beheko plazan izango dira, eta lasterketa hasieran herrigunetik egiten den bira pixka bat luzatu dute –San Jose eta Odietatik pasako da–, itzulia osatzean aurrekoak azkenak ez harrapatzeko. Sub23 eta junior mailako lasterketa iaz baino luzeagoa izango da (16,6 km).

Aurtengo omenduak

Lasterketaren helburuetako bat da mendiari lotutako kirolariak omentzea. Patxi Usobiaga (2009), Edurne Pasaban, Alex Txikon eta Asier Izagirre (2010), eta Edurne Bereziartu, Rikar Otegi eta Pako Irujo (2011) dira orain arte zerrenda osatzen dutenak. 2012rako izen handiak aukeratu dituzte, beste behin: Alberto Iñurritegi, Mikel Zabala eta Juan Vallejo eta Antxon Bandres. Lehen hirurak, goi mendietan osatu duten ibilbide paregabeaz gain, iaz Antartikan egin zuten zeharkaldiagatik; Antxon Bandres zena –iaz zendu zen–, berriaz, mendizaleatasunaren alde egin duen lan eskergagatik.

Bestalde, bildutako dirua Aspanogirentzat izango da aurtengo ere.

Ana, presioa sartzen ari zaizu, faborittoa zarela esanez.

Ana Conde: Horiek dira gure kontuak. Azken batean, biok gara oso lehiakorrak. Estimulatzeko balio digu, lasterketan dena emate aldera.

Zer moduzko sasoi puntuan helduko zara Zumaia?

A.C.: Lasterketaren aurretik ez naiz Oihana bezala ibiliko. Gero, denboraldi honetan minez-eta nabil, eta ezin dut lasterketa askotan parte hartu. Entrenamenduetan nago buru-belarri sartuta, ahalik eta ondoen egoteko. Lanzaroteko proban, Espainiako Kopakoan, gustura aritu nintzen, baina lan gehiago egin nahi dut, ziurtasun handiagoa edukitzeko.

Garailea zuetakoren bat izango da ala besteren bat azalduko da?

O.K.: Espainiako Kopako proba denez, Lanzaroten atera ginenak izango gara, gutxi asko. Beti azaltzen da espero ez duzun norbait, baina Zumaian, beldurrik gehiena Anari diot.

A.C.: Eta nik berari, ez dut gezurrik esango.

Elkar ondo ezagutzen duzue, eta ez dago sekreturik zuen artean. Kontatzea ba al duzue nolako estrategia erabiliko duzuen lasterketan?

A.C.: Ezberdinak gara, nik leku batzuetan azkarrago ibiltzen naiz dut, eta berak besta batzuetan. Bera oso ona leku teknikoetan, jaisten eta, saiaturik da jaitsieretan ni atzean uzten. Baina Zumaia eta ez denez oso teknikoa, saiaturik naiz bere inguruan mantentzen.

O.K.: Lehen horixe esan nahi nuen, Zumaia eta ez dela oso teknikoa, alda handirik ez dago. Jaitsierak ere ez dira teknikoak, eta horregatik da berarentzat egokia. Baina biok egin beharko dugu lasterka ona irabazteko.

A.C.: Azkenean, aurretik eduki dezakezu asmoren bat lasterketako estrategia- inguruan, baina gero,



OIHANA KORTAZAR

Elgeta (1984)

Garaipenak: 2009-2011-2012an, Espainiako txapeldun 2011n, Europako txapeldun eta Munduko Kopako txapeldun 2012an, Zegama-Aizkorri garaile, eta SkyGames-eko kilometro bertikalean txapeldun.

IV Zumaia Flysch Trail

Noiz: uztailearen 22an

Ordua: 10:00etan

Lekua: Zumaia

Distantzia: 31,2 km (sub-23, 16,6 km)

Egitaraua

08:30ean, haurtzaindegia zabalduko da.

08:30ean, mendi txangoa egiteko aukera Inda Mendi-rekin.

09:30ean, korrikalariak irteerako gunera pasako dira, dortsalen arabera.

09:45ean, omenaldia.

09:55ean, korrikalariak irteerako marran ipiniko dira.

10:00etan, irteera emango da.

13:00etan, sub-23 modalitateko sari banaketa.

13:30ean, senior mailako sari banaketa, eta, jarraian, beteranoen sari-banaketa.

korrika ari garela zehazten da zer egin eta zer ez. Adibidez, iaz, hezetasunak eta beroak kalte handiagoa egin zidan lasterketak berak baino. Orduan, eragina duten faktoreak agertzen dira, eta ezusteak izan daitezke.

Denboraldi honetan, zein doa aurretik bion arteko 'borroka' horretan?

O.K.: Ez gara askotan aritu batera. Hirutan edo?

A.C.: Bai, hor nonbait.

O.K.: Azpetitiko kilometro bertikalean eta Lanzaroten lehiatzen ginen, eta aurretik, Cuencan.

Zein aurretik?

O.K.: Hiruretan nik irabazi diot, baina bitan bera izan da bigarren. Esan nahi dut gertu izan dudala.

A.C.: Ezin izan dut nahi beste entrenatu lesioengatik, eta amorrua ematen dit. Badakit bera nola dabilen, baina borroka gustatzen zait.

Zergatik da berezia Zumaiako lasterketa?

O.K.: Etxe ondoan delako, eta ezohiko zirkuitua delako. Askotan bidaiatu behar izaten dut, eta etxe alboan izatea, batera bidaiatu gabe, eskertzekoa da.

A.C.: Urte etortzen naiz. Ibilbidea eta ingurunea ikusgarria da, eta trazatua ere berezia. Eta gero, ez zait inoiz ahaztuko nola hartu ninduten hasiera-hasieratik.

Zumaiako lasterketan egoten den giroa beste lekuetan ere egoten al da?

O.K.: Helmuga dagoen lekuan, kale estu horretan, giro berezia izaten da. Zumaian eta inguruan kirol zaletasun handia dago, eta horrek ere laguntzen du giroan. Gustatu egiten zaio jendeari korrikalariak animatzea. Ikusteko ere leku askotara joan daiteke, eta ona da zaleentzat erraztasun hori edukitzea. Aukera asko dauka Zumaiakoak halako giroa izateko.

A.C.: Hemen mendiko lasterketan dagoen giroaren falta sumatzen dut Gasteizen. Eskertu egiten da hemengo berotasuna jasotzea.

Flysch Traileko inguruetan ibiltzen al zarete entrenatzen?

O.K.: Ez dut ohiturarik, nahiz eta etxe ondoan eduki. Lanagatik eta familiagatik oso tarte txikiak dauzkat entrenatzeko, eta mugitzeko aukera asko ere ez daukat. Ohitura falta da.

A.C.: Nik ez dut Oihanaren ardurarik; esan nahi dut, ez daukat seme-alabarik, eta etxe inguruan ibiltzen naiz, ordu pare bateko buelta emateko aste barruan. Gero, asteburuan, saiatzen naiz batera eta bestera jotzen, eta hezetasuna dagoen lekuetara joaten naiz batzuetan, hona ez bada, beste nonbait.

Denboraldiko helburuak betetzen ari al zarete?

O.K.: Oraingoz, bai. Zegama-Aizkorri nuen helburutzat, eta irabazi egin nuen. Espainiako Kopan ere ondo nabil.

A.C.: Nire helburuak apalagoak dira. Espainiako Kopako probetan ia nahi gabe sartu nintzen, eta hor nabil. Gauzak egin ahala joango naiz beste helburu batzuk jartzen datorren denboraldiari begira.

Zergatik egiten duzue korrika mendian?

O.K.: Lau urte daramatzat mendian lasterka. Elgetakoa izanik, mendia asko gustatzen zait. Oinez askotan joaten nintzen, herriko mendi taldearekin. Egun batean, Mutrikura bizitzera joan eta gero, Arnoko mendi lasterketan atera nintzen, eta horrela hasi nintzen. Gustatzen zait neure burua sakrifkatzea, nekatzea, eta mendian oinez ibiltzeak ez zidan hori ematen. Eta korrika hasi nintzen.

A.C.: Txakurra ekarri nuenean, oso deserosoa zen errepidean lasterka ibiltzea. Eta mendialdera jo nuen, Gasteiz ingurura: Zaldiaran aldera, Gorbeira... Lagun batek esan zidan zergatik ez nintzen joaten mendiko lasterketa batera. Niri ere gustatzen zait neure burua sakrifkatzea eta nekatzea, eta Gasteizko Hamar Mendien proban atera nintzen. 60 kilometro ziren, eta oso gustura egin nuen Gero, lasterketak aukeratzen hasi nintzen, politenak zirenak-eta. Oihana bezala, ni ere duela lau bat urte hasi nintzen mendian lasterka. ■

ANA CONDE

Gasteiz (1978)

Garaipenak: 2009-2010ean,

Zumaiako Flysch Trail

lasterketan garaile

2011n, Euskadiko Kopako

txapelundun km bertikalean



ELKARRIZKETA





Alai auzategia, 12 Tel: 943 86 02 58 ZUMAIA

Itzurun zuhaitz bidea, 1 Tel: 943 86 24 30 ZUMAIA



- Txarkuteria bikaina
- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak



CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etxez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611



Baleike beti eskura

Baleike.com webgunea ▶ Herriko albisteak, argazki bildumak, bideoak, audioak, eztabaida... Herriko informazioari buruzko gunerik osatuena.

Baleike sare sozialetan ▶ Facebook (www.facebook.com/baleike) eta twitter (twitter.com/baleike) sare sozialetan aurkituko gaituzue. Twitter bidez azken orduko albisteak jasoko dituzu, ia gertatu ahala.

Euskarri guztietan ▶ Etxeko ordenagailuan, tablet-ean edo telefono mugikorrean, Baleike beti izango duzu eskura.





Paladar dulce, corazón sano

Aho bete gozo, bihotz bete osasun



Basadi 10A eta 10B

Tel: 943249101

Faxa: 943248088

e-maila: alberdifrutadenda@gmail.com

PROBATZEN DUENAK ERREPIKATU EGITEN DU

ALBERDI FRUTADENDA ZABALDU BERRI DUTE JUAN LUIS ALBERDIK ETA CRISTINA GONZALEZEK, BASADI AUZOAN. FRUTA SALTZEN ESPERIENTZIA ZABALA DUEN AZKUNE FRUTADENDEN SAREKO KIDE DIRA, ETA HORREK KALITATEA ZIURTATZEN DIO BEZEROARI.

KONFIANTZAKO MARKA

“Azpeitiko Azkune baserrian betidanik egin dute lan frutarekin. Lehen azokan saltzen zuten, eta 1975ean lehen denda zabaldu zuten. Gaur egun, dendak dituzte, esate baterako, Azpeitian, Zarautzen eta Deban, eta orain Zumaian ere bai”.





LARANJA ZUKU NATURALA

“Azkunek landatutako laranjekin zukua momentuan bertan egi-teko makina daukagu dendan. Hiru tamainako ontziak daude aukeran: litro laurdena, euroan; litro erdia, 1,5 euroan; eta litroa 2,85 euroan. Askotan, umeari edozein freskagarri azukredun ematen diogu; zer hobea momentuan egindako laranja zuku fresko eta osasuntsua baino”.



ETXEKO PRODUKTUAK

“Azkunek berak ekoizten ditu frutak Lleidan (Katalunia), eta garaian garaikoa saltzen da sareko dendetan. Garaiz kanpokoia fruta eta barazkiak ere eskaintzen ditugu, eta horiek azokan erosten dira”

ENKARGUZKO EROSKETAK

“Bezeraok behar duen edozein fruta edo barazki mota lor dezakegu, espezierik bitxi edo exotikoena ere bai. Kopuru handiak behar dituzten bezeroentzat ere enkarguak hartzen ditugu”.

KALITATEA

“Azkunek berak ekoiztutako fruta izateak kalitatea bermatzen du. Gainera, neurri txikiagoko aleak merkeago saltzen ditugu, baina kalitate berbera mantenduz”.

KONTSERBAK ENTSALADAK OSATZEKO

“Entsaladak osatzeko kontserbako produktuak ere saltzen ditugu, Ortizen produktuak, batez ere. Berreziki, L'Escalako (Katalunia) antxoak”.

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60



Zumalako Udala

Parte hartu erabakiguneetan

Datozen hitzordueak:

Uztailak 18:
Berdintasun Foroa

15:15ean, Alondegian elkartuko gara

Uztailak 19:
San Jose auzoa nola eraberri-
tuko den azaltzeko parte hartze
prozesuko azken bilera

19:00etan, udaletxeko pleno aretoan

**Zatoz eta eraiki dezagun
Zumaia denon artean!**



UZTAILA - ABUZTUA

ERAKUSKETAK

Erakusketak Alondegian

Uztailaren 6tik 20ra: Zumaia txuri-beltzeko argazki lehiaketako lan onenak.
Uztailaren 25etik abuztuaren 12ra: Keixeta

UZTAILA

Uztailak 13-15, ostiraletik igandera

Marinel Azoka Kirol Portuan, Marina Urola S.A. antolatuta.

Uztailak 14, larunbata

21:00etan Itzurun hondartzan, FESTA BRASILDARRA: zuzeneko musika brasildarra, Capoeira eta Makulele erakustaldia, eta Brasilgo dantzak.

Uztailak 15, igandea

12:00etan, Urola ibaiaren XXXVI. Igoera-jaietsiera, Euskadiko XIV. Kopa.

Uztailak 20, ostirala

20:00etan 7ko futbol txapelketako finalak.
22:00etan Oxford aretoan: "Bihotzetik bihotzez". Txari Eleta eta Juan Luis Blanco kontzertuan.

Uztailak 21, larunbata

16:00etan, Joxe Mari Korta txirringulari proba.
18:00etan Ondartxo plazan, CIRQUEAMOS zirko tailer eta ikuskizuna.
23:00etan Mari kalean, Zumaia Udal Musika Bandaren udako kontzertua.

Uztailak 22, igandea

10:00etan Zumaia IV. Flysch Trail mendi lasterketa.

Uztailak 28, larunbata

Eguerdian Bidasoako Folklore Topaketak: hiru herrialdetako dantzak Erribera kalean.

11untzean hasita, Itzurun hondartzan, SURF FESTA: Skandalue taldearen kalejira, parrilada...

23:00etan Itzurun hondartzan kontzertua: Skandalue eta Los Tremendos Corquettes.

Uztailak 31, asteartea

20:00etan Mari kalean, Fado iluntzea: "Ventos De Saudade".

ABUZTUA

1-12, musika jaialdia

4, gala gaua. Oraindik ez dugu erabaki zer programatu (asteazkeneko batzordean)

10, euskal jai

18, kuadrila eguna

24-28, Oikiako jaiak



Zumaiako MUSIKA jaialdia
abuztuaren 1etik 13ra

Asteazkena, 1
20:00etan Kolradian, klarinete laukotea.
22:00etan parrokian, Debako Aitzari abesbatza eta Zumaia San Pedro abesbatzak: Ikeren zatia Mozarten "Koroak eta Heza" eta bigarren "Kontzertu Korala".

Osteguna, 2
20:00etan Mari kalean, Juan Mari Beltran: "ORRIKO XORIA"

Ostirala, 3
22:00etan Mari kalean Zuzeneko Musika "The Silent Band".
BUSTER KEATON. Filmak: "Fatty Jules Parken" (Hony Island) 1917, "Onzia (The Boat)" 1921 eta Sakaldaria "The Cook" 1918.

Larunbata, 4
20:00etan Mari kalean, Traveling Brothers.

Igandea, 5
19:00etan Iñigo Maria, Stick Dance Quartet "Sorpresa kutxa".

Astelehena, 6
20:00etan Iñigo Maria aretoan, "Zuzeneko musika" Biltzarri Musika. Hizlarria: Iker González Ubeaga.

Asteartea, 7
20:00etan komentuan, KIRKITT Ensemble.

Asteazkena, 8
22:00etan Iñigo Maria aretoan, Piztolaren langak: "Orkestra Amalges Gameraia" eta 2 dantzari.

Osteguna, 9
20:00etan komentuan, Jinarok ensemble.

Larunbata, 11
22:00etan Maria eta Jose aretoan, Judith Jauregui, piano / Idolo Gaitierrez Arenas, biolontzeak.

Igandea, 12
20:00etan Uandegia aretoan, Pablo de Navarra- biolontze kontzertua.

Zumaiako Udala
Udako Kulturaren eta Turismoaren Zuzendaritza
kutxa
Udal MUSIKA Patronatua



Angelo Sorara, 2
20750 ZUMAILA
(Gipuzkoa)
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 637



Zumaia Hotela
Jatetxea
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaila tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Egin zaitetz
BALEIKEO
bazkide



BALEIKEO
GERRAKO BOST
DESAGERTU
AURRATU DITUZTE

BESTE BEHIN, MURRIZKETAK EUSKAL HEDABIDEENTZAT

Eider Carton (Elhuyar) Mikel Irizarar (Tokikom), Joanmari Larrarte (Berria Taldea) eta Xabier Letona (Argia), Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen izenean

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

Estrategikoa, bai, oinarritzko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardura dugulako. 27 milioi euro inguruko jarduera ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotxo dakigu hori. Inoiz baino ahalegin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeko: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatzeko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberran ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakundeen mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen eredia ezar dezatela, sektorean inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publizitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeei (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horieran sakontzen laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik

Inbertsioak egin ahal izateko laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da



gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla gutzientzat. Baina *benetan* estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea beregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berri ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeei. Danon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrean jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeei dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun. ■



Sukalde eta bainugelan **BERRIKUNTZAK**

Inoiz izan diren prezio onenetan.

- ✓ Gremio guztiak ditugu eta geuk koordinatzen ditugu.
- ✓ Konpromiso gabeko aurrekontua:
ESKATU BELDURRIK GABE.
- ✓ 40 urtetik gorako ibilbidea bezeroen nahia betetzen.



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com



Gogoratu!

Endañeta: aurrena arreta, gero salmenta.



Odontologia Orokorra
Ortodontzia
Implanteak
Periodontzia
Protesia

Hobeto sentituko zara!

Kol. zk. 829
Harategiko kalea 1, behea-A
(Ardantzabidetik Sartuta 4. Solairua)

Tel. 943860247
www.iplazaola.net

ORDAINDU 3 HILABETETAN INTERESIK GABE

